2008-XII-17
Número **262.** zenbakia

ELA
www.ela-sindikatua.org

astekaria

# EDITORIALA

## Tentel halakoak

**Ez gaituzte ezagutzen. Ezta ezagutzeko gutxieneko borondate azalpenik ere. Ez errespetu edo gutxieneko begirunerik ez eta bestearen iritzia eta jardunbidea errespetatzeko asmorik ere. Halaxe adierazten dute hainbat ordezkari politikoek, bereziki hedabideetan adierazpenak egin behar dituztenean. Besteoi ardurak leporatu, aholkuak eman, zintzo jokatzeko zer egin behar dutenerako bidea erakutsi... beti besteoi, barnera begira inongo autokritika zantzurik gabe.**

**Oraingoan Javier Balza, Barne Sailburuak, ETAren azken atentatua dela eta ELA eta EBri AHTren inguruko bere jarrerak berrikusi (aldatu esan nahi du) behar dutela plazaratu du. Burutazio ugari datozkigu berehalakoan honelako tentelkeriak entzunda, are eta gehiago Sailburu batek adierazten baditu. Ongi asko daki Balza Jaunak ELAk ez duela AHT eta beste gaiaz duen jarrera aldatuko ETAren jardunbidea dela eta. Halaxe mintzo ginen ETAren atentatua gaitzetsiz, Azpeitiko elkarretaratzean Inazio Uriaren senitartekoei gure dolumina adieraztera bertaratu ginenean.**

**Lotsagarria deritzogu arduradun politiko batek, oinaze mingarriko uneaz baliatuz, zilegiak bezain demokratikoak diren jarrerak arbuiatu eta aldatu behar direla adieraztea. Hobe luke, demokrazia indartze aldera, edozein proiekturen aurrean eztabaida soziala sustatzeko behar besteko ahaleginak egingo balitu, baita ere tren sozial baten aldeko eztabaida eta partehartzea. Bestetik, lehendabizi etxeko lanak egin beharko lituzke etxe barnean, gobernu kide den alderdiarekin gauzak garbitze aldera.**

**Interes handiak daude, itzelezko propagandak erakusten duen moduan interes pribatuak gainera, garraio eredu bat ezartzeko eta gizarteko hainbat eragileren zilegizko jarrera zapuzteko. Baina hori gutxi balitz, bere egitasmoa garatzeko Inazioren erailketa erabili izana, gizalegerik gabeko jokabide bihozgabea erakusten du. Hau miserablea da.**




## Joseba Villarreal, responsable de negociación colectiva, exige a los departamentos de Trabajo rigor a la hora de aprobar EREs

# "EN 2009 TOCA SEGUIR PELEANDO POR UN MEJOR REPARTO"



**-Estamos acabando el año. Parece obligado hacer balance de lo que ha dado de sí el año 2008 en materia de negociación colectiva.**

-El balance es positivo porque ha habido dinámica sindical y negociación. Eso se ha traducido en algunos buenos acuerdos sectoriales y de empresas. Y eso, a pesar de que en el segundo semestre del año el efecto de la crisis se ha dejado notar en un sinfín de temas no ligados a la negociación colectiva pero que pretenden condicionar la misma. Muestra de ello son, por ejemplo, el convenio de comercio de alimentación de Bizkaia, con una referencia interesante como es el incremento de 1,35 puntos por encima del IPC y tres horas de reducción de jornada por cada año de vigencia. A nivel de empresa, destacaría los acuerdos vinculados al mantenimiento de las 35 horas, con conflicto, como ha sido el caso de Sidenor, Bellota herramientas, o CIE Forja.

Por otra parte, 2008 en Gizalan, en el sector sociosanitario, más concretamente, está siendo un año muy ilustrativo de los intereses que defiende la administración pública y de los criterios que pretende seguir manteniendo en lo referente a las condiciones de trabajo del sector y la privatización más salvaje del mismo. Ahí están los casos de las trabajadoras de la residencia Ariznavarra, de Gasteiz, que llevan ya 10 meses de huelga; o las de Rehavital, en Tudela, que llevan 8 meses y medio.

Además, hemos vivido el conflicto de la residencia Faustino Orbegozo, que ilustra muy claramente la política social de la Diputación de Gipuzkoa; hemos tenido un largo conflicto en la empresa Lagunduz, de Leioa, de ayuda a domicilio; y en estos momentos hay en marcha una dinámica muy interresante en ayuda a domicio en Alava, donde las trabajadoras han llevado a cabo una jornada de huelga y están planteadas otras dos.

Sin duda, el sector sociosanitario está dando una auténtica lección de lucha y dignidad annte una patronal privada y pública que no les va a regalar nada, sino todo lo contrario.

**-En estos momento, hay varias empresas que protagonizan huelgas muy largas. ¿Qué desenlace esperamos?**

-Las trabajadoras y trabajadores de Rehavital, Ariznavarra, Guibema… llevan meses de huelga y, evidentemente, son huelgas que se iniciaron y continúan para ser ganadas. Desde aquí enviamos a todos ellos y ellas nuestro aprecio y un mensaje de ánimo y solidaridad.

## Zerbitzu Sozialen Lege Proiektuak ez ditu herritarren beharrak betetzen

# "EZ DU NEURRI ZEHATZIK JASOTZEN"

**Gizarte iruzurra". Hala definitzen du gizarte politiketarako arduradun Mikel Novalek abenduaren 5ean Eusko Legebiltzarrak onartu zuen Zerbitzu Sozialen Lege Proiektua. Ekimenak EAJ, EA, EB, PSE-EE eta PPren aldeko boza jaso zuen. "Azken finean jendeak gizarte zerbitzurik izan ez dezan ados jarri dira alde bozkatu duten alderdiak".**

Novalek salatzen duenez Zerbitzu Sozialen Lege Proiektuak ez ditu arlo honetan herritarrek dituzten eskubideak onesten, ez eta eskubide unibertsal gisa ere. "Ekimen pribatuko enpresei legean ematen zaien garrantzia ikustea nahikoa da legea zeinen mesedetan egina dagoen ikusteko".

"Proiektuak kontraesan handia agertzen du eskubideen unibertsaltasunaren aldeko arrazoibide orokorraren eta neurri zehatzen artean, ez baita neurririk zehaztu. Aurreko legearekiko jarraitutasuna eta aurreko horren helmena ikusita, zilegi da pentsatzea praktikan, proiektua onartu eta gero ere, gizarte-zerbitzuen asistentziazko izaerak bere horretan jarraituko duela, biztanle gehienak kanpoan utzirik".

Novalen iritziz ez da zehatz esaten zenbateko aurrekontua izango duen. "Zerbitzu batzuen ordainketa partekatua argitu gabe dago. Zerbitzu eskasia diru laguntzekin bete nahi dute, eta, azkenean, familiak eta, batez ere, emakumeak izango dira lanari uko egingo diotenak".

Bestalde, sistemaren publikotasunari dagokionez, erantzukizun publikoari baino ez zaiola erreparatzen nabarmentzen du. "Sektore pribatuari nabarmentasun handiagoa ematen zaio, eta sektore publikotik pribatura diru-baliabide gehiago bidaltzea planteatzen du. Azken batean legeak ez du hobekuntza errealik ekarriko".




Las trabajadoras de Sabeco, de Renteria, por su parte, están llevando a cabo una pelea muy interesante: piden algo tan básico como que se les aplique el convenio sectorial de Gipuzkoa en vez del estatal de grandes almacenes. De cobrar unos 800 euros al mes pasarían a cobrar en torno a mil. Son luchas de dignidad; contra la precariedad.

**-En puertas de 2009, ¿cómo se presenta la negociación colectiva en un contexto de recesión o crisis?**

-En ELA tenemos que hacer un gran esfuerzo pedagógico cara a la negociación colectiva de 2009, porque los poderes públicos y empresariales van a pretender que la clase trabajadora acabe pagando una crisis en la que no ha tenido nada que ver. Tenemos que explicar a nuestra gente que el modelo de negociación colectiva que hemos llevado a cabo en los últimos años sigue siendo perfectamente válido, así como los objetivos que nos hemos marcado de lucha contra la precariedad, mejora del poder adquisitivo de los trabajadores/as, reducción de jornada… Hay empresas y sectores donde hay condiciones para ello. No vamos a aceptar que, una vez más, sea la clase trabajadora la que tenga que apretarse el cinturón. Entre otras razones, porque en los sectores más precarizados hablar de crisis suena a broma de mal gusto: esa gente sí que lleva en crisis mucho tiempo.

En resumen: a pesar de las dificultades, en 2009 toca seguir peleando. No hay espacio para el derrotismo. Vamos a a luchar por conseguir un mejor reparto de la riqueza, porque la negociación colectiva es, para ELA, un instrumento de reparto.

**-Sin duda, la situación va a poner a prueba la capacidad de organización de ELA.**

-En esta situación, más que en ninguna otra, el camino es la organización de las secciones sindicales: seremos capaces de hacer y conseguir cosas en función de la fuerza que tengamos en la empresa.

Tenemos que seguir profundizando y mejorando nuestra capacidad organizativa porque nuestro único límite es la capacidad que tengamos de organizar a la gente.

## RIGOR E INFORMACION

**-¿El imparable goteo de EREs de las últimas semanas hasta qué punto es real? ELA ha denunciado que algunos pretenden aprovechar la coyuntura para seguir enriqueciéndose aún más…**

-La crisis está teniendo efectos en forma de EREs, de suspensión y de rescisión. Pero hemos detectado que muchos de esos EREs se están dando en empresas que a día de hoy tienen beneficios o que han tenido importantes beneficios en los últimos años. Para nosotros, esos EREs son inaceptables. Nuestra alternativa, por tanto, es estudiar caso por caso en su globalidad y con perspectiva, mirando la trayectoria pasada y futura, y en función de eso actuar.

*Oztopoak oztopo, 2009an borrokatzen jarraituko dugu. Helburua aberastasunen bidezko banaketa da, eta hori lortzeko tresna, negoziazio kolektiboa*

**-ELA ha exigido a los gobiernos de Gasteiz e Iruña y a la delegación de Trabajo que actúen con rigor.**

-Así es. En esta coyuntura es fundamental que Trabajo actúe con rigor y que no acepte lo que no sea objetivamernte aceptable. Además de rigor, ante el número de expedientes de regulación de empleo (EREs) que se presentan día a día, ELA ha solicitado a los Departamento de Trabajo información detallada de la documentación remitida por las empresas. ELA considera que existe un enorme vacío de información que debe ser solventado inmediatamente para que los sindicatos podamos evaluar los expedientes que se presentan.

La petición fue realizada hace días, sin que hasta el momento haya habido ninguna contestación por parte de los Departamentos de Trabajo.

**-¿Qué líneas de actuación plantea ELA ante los Expedientes de Regulación de Empleo?**

*Enplegu- Erregulazio Espedienteen inguruko informazio falta salatu nahi dugu; gardentasun faltak helburu politikoa besterik ez du*

-Es evidente que hay que analizar los datos de todos y cada uno de los expedientes para comprobar fehacientemente la oportunidad y justificación de cada uno de ellos, así como la viabilidad del planteamiento.

Por todo ello, en ELA estamos definiendo, en reuniones internas con las personas afectadas en los distintos ámbitos, los criterios a seguir por los diferentes tipos de expedientes que se están planteando, tanto de rescisión como de suspensión.

Así es fundamental concretar la posición respecto al personal eventual y de ETTs o subcontratas; hay que fijar la duración máxima de los EREs; ante las suspensiones temporales explicitar el sistema de implantación para el conjunto de la plantilla etc.

**-Estas reuniones están siendo muy fructíferas para clarificar estos conceptos y establecer las pautas a seguir.**

-En Jaso Idiazabal y Gruas de Obra, la empresa plantea un ERE de rescisión para 44 trabajadores. Hacemos una huelga de casi tres semanas y, a falta de confirmación oficial, la Delegación de Trabajo no acepta el ERE. En GNK Legazpi, la empresa plantea un ERE de suspensión en el que los eventuales van a la calle. Nuestro planteamiento es firme de que sin eventuales no hay acuerdo, y terminan incorporando los eventuales al ERE.

De esas experiencias sacamos como conclusión que luchar merece la pena y de que si estamos organizados se pueden conseguir logros.

**-Finalmente, ¿qué otras reivindicaciones tiene ELA cara a los poderes públicos?**

-Una reflexión evidente es que ésta es una crisis financiera; la administración está metiendo dinero en el mercado pero ese dinero no llega donde tiene que llegar y, lo que es también gravísimo, nadie sabe dónde está ese dinero. El resultado es que hay muchas empresas que tienen mercado, que tienen producto y no consiguen financiación. Y eso es inadmisible.

# LA ADMINISTRACIÓN VASCA, AL SERVICIO DE LOS INTERESES POLÍTICOS

**Al Gobierno vasco le han bastado dos legislaturas para eliminar toda práctica democrática en las relaciones laborales, según se recoge en un informe que ha elaborado Gizalan sobre el desarrollo de la negociación colectiva en la administración vasca. En este sentido, subraya que "prácticamente todos los sectores dependientes del Gobierno han tenido en estos últimos cuatro años algún tipo de conflicto ligado directamente con la negociación de las condiciones de trabajo. Ninguno de ellos ha sido resuelto con acuerdo mayoritario".**

**El estudio revela que la administración vasca ha optado por los acuerdos en minoría, a los que se presta la parte sindical más débil. Con la firma en minoría, el gobierno vasco profundiza en su gestión neoliberal y economicista en ámbitos como la sanidad o la educación. Los problemas de falta de plantilla o de medios, la elevada edad media del personal, la mala organización, los problemas derivados de una gestión carente de frescura y lejana a los y las ciudadanas siguen estando ahí.**

**Para ELA, la firma en minoría representa "el desprecio más absoluto a la representación obtenida por cada organización en las elecciones sindicales y es un signo de prepotencia y de inmadurez democrática".**

**En opinión de ELA, es en la Administración General Autónoma donde más se aprecia el deterioro de las relaciones laborales y donde el Gobierno ha plasmado con más claridad sus intereses. "El Gobierno Vasco, en pocos años, y desde la llegada del equipo de gobierno actual, ha pasado de tener una administración nueva, joven, dinámica y cercana a la ciudadanía y a sus problemas, a una administración dirigida por burócratas, desilusionada y desmotivada. Han hecho de la Administración un tinglado al servicio de sus propios intereses, en la que si se tienen que modificar las leyes y los decretos por imposición, se hace".**

**Como ejemplo de este continúo retroceso, el informe hace hincapié en la evolución del empleo. En la Administración el índice de precariedad es del 30%. Es decir, 30 de cada 100 trabajadoras o trabajadores de la Administración lo hacen con un contrato eventual, a veces en fraude de ley, o a jornada parcial. Así, en Osakidetza es del 27%; en la enseñanza pública no universitaria es del 29'04%, en la Administración General Autónoma es del 30%. La conclusión es que este deterioro responde a una decisión política.**

## ELAk Hego Euskal Herriko 2007ko fiskalitatearen gaineko txostena aurkeztu du

# FISKALTASUN JUSTUAGO BATEN ALDE

**ELAk urteak daramatza gizartearentzat justua izango den bidezko fiskaltasuna eskatzen. Posiblea, eta gainera beharrezkoa da bidezko sistema fiskal baterako aldaketa. Indar korrelazio kontua da. Izan ere, ezinbestekoa da gutxien dutenei babesa emango dien fiskaltasun bat lortzea, guztion beharrak aseko dituena. Hau da ELAk Hego Euskal Herriko 2007ko fiskalitatearen gainean abenduaren 16an aurkeztu zuen txostenaren laburpena.**




### 1. GURE PRESIO FISKALAREN ETA EB-REN ARTEKO ALDEA

Hego Euskal Herriko (EHE) zerga arloaren berezitasunik aipagarrienetako bat Europar Batasunekoarekiko agertzen duen presio fiskal urria da. 27-EBn, batez beste, zergak eta Gizarte Segurantzarako kotizazioak sortutako aberastasunaren %39,9 direlarik, EAEn eta Nafarroan %33,2 eta %32,5 baino ez dagokie, hurrenez hurren. Jauzia are nabariagoa da gure presio fiskala Danimarkarekin edo Suediarekin erkatuz gero, bi estatu horietako presio fiskalak, ondoz ondo, BPGaren %49,1ekoa eta %48,9koa dira eta. Greziako presio fiskala (BPGaren %31,4koa) baino ez da Nafarroakoa baino txikiagoa, eta Greziakoa eta Irlandakoa (BPGaren %32,6koa) baizik ez daude EAEkoaren azpian.

Europarekiko aldeak aztertzean ikus daitekeenez, EAEko presio fiskala 27-EBkoa baino 6,7 puntu txikiagoa da. Diferentziarik handiena zuzeneko zergetan ageri da; zerga horien bidez, EAEk %3,5 diru gutxiago biltzen du (2,8 puntuko aldea zeharkako zergetan eta 1,3 puntukoa Gizarte Segurantzarako kotizazioetan) Europar Batasuneko herrialdeek batez beste baino. Horren arabera, EAEn 4.152 milioi euro gutxiago biltzen dira Europar Batasunean batez beste baino, hau da, 1.938,4 euro gutxiago pertsonako. Hortaz, HEHn 5.417 milioi euro gutxiago biltzen dira zergen bidez Europar Batasunean batez beste baino (1.971,5 euro gutxiago pertsonako).

### 2. ZERGA ARLOA, LAN-ERRENTEI ERREPARATUZ

Hego Euskal Herriko zerga arloa 27-EBkoarekiko ageri duen defizitaren arrazoietako bat soldatakoak ez diren errentetan jazotzen den iruzur fiskal handia da. PFEZn batez beste aitortutako lan-errenta 20.108,5 eurokoa izan da Hego Euskal Herrian, jarduera ekonomikoek batez beste aitortutakoa (hau da, enpresarien, profesionalen eta artisten errentak), 11.208 euro, baino 8.900 euro handiagoa, alegia.

Horrez gain, EAEri zein Nafarroari buruzko ataletan ikusten denez, aitortutako bi errenta moten arteko jauzia gero eta handiagoa da urtez urte. Horrek, zalantza barik, zuzeneko lotura du lau lurralde historikoetan ikuskaritzan egiten den ahalegin urriarekin, eta gero eta urrunago jartzen gaitu Europako parametroetatik.

Agerikoa da errenta ekonomikoak lan-errentak baino handiagoak direla; beraz, argi dago benetako diru-sarrerak aitortuko balira, askoz diru gehiago bilduko litzatekeela zergen bidez.

Soldatakoak ez diren errentetan egiten den iruzur fiskalaren ondorioz, zuzeneko zergen bidez bildutakoaren %60,2 EAEn, eta %52,8 Nafarroan, lanaren PFEZtik datoz.

### 3. ONDOZ ONDOKO HAINBAT ERREFORMA, ZERGAK URRIAGOTZEKO.

Hego Euskal Herrian azken urteetan egin diren erreforma fiskal ugariek areagotu egin dute Europar Batasuneko zerga arloarekiko genuen diferentzia, erreforma horiek Sozietateen gaineko Zergaren eta errenta handienen PFEZren gutxitzea eta kapitalak %18ko tasa finkoa ordaintzea ekarri dute eta. 2007ko ekitaldiko erreformek, adibidez, HEHn urtero 500 milioi euro gutxiago biltzea eragin dute.

Gaur egun, Sozietateen gaineko Zerga areago murrizteko eta Ondarearen gaineko Zerga kentzeko proposam nak aurkeztu dira. Alderdi horiexen gainean hausnartuko dugu jarraian.

Sozietateen gaineko Zergaren gutxipenak ez du ekonomiaren hazkundea sustatuko; ekarriko duen ondorio bakarra enpresek eskuratzen dituzten mozkinen zioz zerga urriagoak pagatzea izango da. Izan ere, EAEko sozietateen %37,4k zerga-oinarri negatiboa aitortzen du, hau da, ez du Sozietateen gaineko Zerga ordaintzen, galerak izan dituztela deklaraturik; %34,3k zerga-oinarri nulua edo 6.000 eurotik beherakoa aitortzen du, eta, horregatik, enpresa horietako askok ere (zerga-oinarri nulua deklaratzen dutenek) ez dute Sozietateen gaineko Zerga ordainduko. Hortaz, enpresen %71,6k 6.000 euro baino gutxiagoko oinarria aitortzen du, eta, beraz, enpresen %12,2k baino ez du aitortzen 60.000 eurotik gorako mozkinak lortu izana. Datu horiek ikusita, esan daiteke enpresek ordaindu beharreko zergak gehiegizkoak direla? Bidezkoa da enpresek are gutxiago ordaintzea?

Hedabideetan Sozietateen gaineko Zergaren tasaren inguruan eratu den eztabaida guztiz aizuna da. Zehazki, EAEn, Sozietateen gaineko Zergaren batez besteko egiazko tasa %17koa da, alegia, batez besteko tasa nominala baino 15,6 puntu txikiagoa. Alabaina, zerga-arintze, kenketa eta antzekoen ondorioz, enpresek benetan ordaintzen duten zerga eztabaidetan aipatzen den tasa nominalaren erdia da, praktikan.

Ondarearen gaineko Zerga kentzeak, gastuan eragin nabaria izango duen bilketa-lerma ekartzeaz gain, ondarerik handienak aitortzen dituztenei egingo die bereziki mesede.

### 4. GASTU FISKALEN PISU HANDIA

Hego Euskal Herriko presio fiskala 27-EBkoa baino txikiagoa izatearen beste arrazoi bat gastu fiskalak dira, hots, zerga-arintze, kenketa eta abarren zioz altxorrera biltzeke geratzen diren diru-kopuruak. ELAren iritzia, era horretako gastuak ez dira batere bidezkoak, gastu publikorako baliatu beharreko diru-sarreren murrizketa dakartelako, gastu publikoa baita, izan ere, errenta hobeto banatzeko aldarrikatzen dugun bitartekoa.

EAEn, 2007ko ekitaldirako aurrekontuetan, 6.046 milioi euroko gastu fiskala jaso zen, benetan bildu zenaren %47,8, alegia. Nafarroan, gastu fiskalaren zenbatekoa 1.443 milioi eurokoa izan zen, hots, benetako diru-sarreren %41. Hortaz, gastu fiskalak, 2007rako aurrekontuetan, eurak egon ez balira bilduko zenaren %32,3 eta %29,1 izan ziren, hurrenez hurren, bi erkidegoetan.

### 5. 2008AN, ZERGA-BILKETA URRIAGOA

2008ko lehenengo 10 hilabeteetan EAEn zergen bidez bildutakoa aztertu ez ezik, erreforma fiskalek diru-sarrera publikoetan izan duten eraginari buruzko hausnarketa ere egingo dugu.

Azken hilabeteetan ekonomiak izan duen hazkunde motelagoak itzali egin ditu berak zerga-bilketan izango dituen ondorioen inguruko alarmak. Antza denez, zerga-kobrantza txikiagoaren arrazoi bakarra BPGaren gehikuntza txikiagoa da. Baina zergak behin eta berriro gutxitu dituzten ondoz ondoko erreformek ere eragin dute diru-sarrera publikoen murrizketa.

EAEko Foru Aldundiek 10.188,3 milioi euro bildu zituzten, 2008ko urtarriletik urrira artean; horrek aurreko urtealdiko denboraldi berean bildutakoaren %3,4eko urritzea adierazten du. Zergabilketaren osagaiak zehaztasun handiagoz aztertzean, hauxe ikusten dugu:

- **Zuzeneko zergen bilketa izan da gutxien (%0,9) urritu dena.**

Zuzeneko zergen bilketaren osagaien azterketak erakusten duenez, urritze hori Sozietateen gaineko Zergak eragin du, zerga horren bilketa %8,5 gutxitu baita, onartutako zerga-beherapenaren ondorioz. Nahiz eta oraindik urtealdiko azken 2 hilabeteetako bilketei buruzko datuak aztertu beharko diren, ez dirudi Sozietateen gaineko

Zergaren inguruan gauzak asko aldatuko direnik, aurtengo lehenengo 10 hilabeteetan bildutakoa 2007ko ekitaldi osoan jasotakoaren %80 da eta.

- **Zeharkako zergen ondoriozko diru-sarrera %7,8 gutxitu da.**

Jaitsiera horren zati bat kontsumoaren gutxipenak eragin bide du, baina, datuak aintzat hartuta, iruzur fiskalaren ondorio ere badela esan ahal dugu.

- **Tasen eta beste sarrera batzuen kobrantza %1,5 urritu da.**

*Reivindicamos una fiscalidad justa para la sociedad, propicia para los menos favorecidos, y que permita cubrir todas las necesidades de la población*

## Emerita Cuellar, inmigrazio arduraduna, Etorkinen Nazioarteko Egunaren inguruan mintzo da

# "BERTAN BIZI GARELAKO, BERTAKO BIZI-AUKERAK"






**Abenduaren 18a Etorkinen Nazioarteko Eguna da. Aldarrikapen data hau Nazio Batuen Batzorde Nagusiak aukeratu zuen 1990ean, langile migrarien eta euren familien eskubideak jasotzen zituen nazioarteko hitzarmena sinatu zela gogoan hartzeko. 2003an sartu zen indarrean hitzarmen hori.**

**-Gaur egun 37 estatuk berretsi dute hitzarmena. Tartean dira Europako hainbat estatu, baina Europar Batasuneko estatu kide bakar bat ere ez dago horien artean. Zein hausnarketa egiten duzu?**

-Horrek erakusten du zein konpromiso maila baxua duten migrazio mugimenduekiko; Europar Batasunean garatutako migrazio politikek etorkinen eskubideak urratzen baitituzte.

Horregatik abenduaren 18koa ez da izan behar beste ospakizun bat gehiago. Euskal Herriko egoera ikusita, beharrezkotzat jotzen dugu pertsona horien eskubideak aldarrikatzea, eta haien egoera zein den erakustea.

**-2008a azken urteotako gogorrena izan da etorkinentzat, batez ere, erakundeen etengabeko arrazakeriagatik. Nola deskribatuko zenuke euren egoera?**

-Herrialde aberatsetako atea bi aldiz itxita dago etorkinentzat, itxitura fisikoak eta administratiboak baitaude. Barruan egonda ere, nahiz eta lana eduki, gizarte-segurantzari ordaindu, seme-alabak eskolara bidali, hipoteka ordaindu, hizkuntza ezagutu, bertako gizartean murgildu, eta paperak eduki, atea itxi egiten zaie eta duintasunez lan egin eta bizitzeko eragozpenak jartzen zaizkie.

Azkenaldian onartu diren dekretu, lege eta arauek erabat babesgabe utzi dituzte etorkinak:

- Itzulera Zuzentarauak paper bakoak kanporatzea eta kriminalizatzea ekarri du.
- Atzerritarren Legeak eta hortik eratorritako dekretuek etorkinen oinarrizko eskubideak urratzen dituzte.
- Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuek onartutako legediek diskriminatu eta aukerak ukatzeaz gain, babesik gabe uzten dituzte etorkinak.

Azken batean, neurri bidegabe eta murriztaile hauek, arrazakeria eta xenofobia bultzatzen dituzte. Guzti horregatik, ELAtik exijitzen dugu lege guzti horiek indargabetu ditzatela.

**-Langileok ez ditugu garai xamurrak bizi. Pentsatzekoa da langile etorkinen egoera are eta gogorragoa izango dela, ez?**

-Bai, hala da. Krisi ekonomikoaren ondorioz etorkinak sistemaren azken biktimak dira. Ez dago dirurik pertsona horien integrazio sozio-laboralerako, baina badago dirua orain arte hainbeste aberastu diren sektoreetarako.

Beste behin ere, ELAtik dei egiten diegu langile guztiei etorkinen arazoez jabetu eta horien eskubideen alde borrokatzera; etorkinena baita prekarietatea gehien sufritzen duen kolektiboetako bat. Era berean, gure herrian bizi garen guztiontzat bizi aukera berberak exijitu behar ditugu, gizabanako bakoitzaren jatorria dena delakoa izanda ere.

*Debemos exigir que todas las personas que viven en nuestro país, independientemente de su lugar de origen, tengan las mismas oportunidades de vida*

## Labur Breves

### Movilizaciones en la enseñanza concertada

ELA, LAB y STEE-EILAS convocaron una concentración el 17 de diciembre frente a la sede del Parlamento Vasco. El objeto de la concentración era presentar una interpelación al Parlamento; en la misma se recogen las reivindicaciones de las trabajadoras y trabajadores del sector. ELA, LAB y STEE-EILAS exigen la negociación de un nuevo acuerdo para homologar las condiciones de las trabajadoras y trabajadores del sector.

### ELA, con el euskera

ELA participó en el acto a favor del euskera organizado por Kontseilua el sábado 13 de diciembre en el BEC de Barakaldo. Una delegación del sindicato estuvo presente en Barakaldo, y destacaron, una vez más, el compromiso de ELA con el euskera.

### Merkabilbaoko arraindegi eta itsaski enpresetako langileak greban

ELAk deituta Merkabilbaon arrandegi eta itsaski enpresetan aritzen diren langileek greba egingo dute abenduaren 19, 22, 23, 24, 29, 30 eta 31n.

Alde batetik, soldatak izoztearen aurka protesta egingo dute, eta bestetik, enpresa bakoitzak bere egutegia egitearen aurka. Arlo honetako langileek hilean 900 euroko soldata dute eta ez dute hitzarmena sinatu azken bi urteetan.

### Contra la directiva del tiempo de trabajo

Una delegación de ELA, encabezada por Joseba Villarreal, responsable de negociación colectiva y Egoitz Iturbe, responsable comarcal de Oria-Goierri, asistió a la manifestación convocada el 16 de diciembre en Estrasburgo por la Confederación Europea de Sindicatos (CES) con el objeto de denunciar la implantación de la Directiva del tiempo de trabajo.

Esta Directiva pretende eliminar el tiempo de descanso y retrotraernos a tiempos pasados de jornadas interminables (se plantean hasta 65 horas) y condiciones laborales extremas. Según ELA, el contenido de la directiva no se corresponde con la dinámica de negociación colectiva centrada en reducir la jornada laboral como instrumento para la creación de empleo y para la mejora del existente.

### Contra la política social de la Diputación de Gipuzkoa

ELA convocó una manifestación para el 18 de diciembre en Donostia para denunciar la política social de la Diputación de Gipuzkoa, y en especial la privatización y el alarmante deterioro de las condiciones laborales de las trabajadoras del sector socio-sanitario.

**www.ela-sindikatua.org**

Franqueo concertado
nº 08/207

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org